



MUNHOA IKASTOLAKO



4* ALDIZKARIA

Munhoa ikastolako ikusgarria apirilaren 4ean .



Urtero bezala, aurten ikusgarri bat egin genuen Lasako salan apirilaren 4ean. Ikusgarriaren prestatzeko, ama ikastola eta lehen mailakoak elkartu ginen biltzar nagusi batean.

Lehenik gure ideiak proposatu genituen eta ideiak adostu genituen.

Ondotik taldeak egin genituen .

Ikusgarria umoretsua izatea nahi genuen eta jostatu nahi genuen.

Aurtengo gaia har(r)emana zen.

5 garren urtekoek ongi etorria egin zuten, bertsoak kantatuz.

Ondotik, ikusgarria hiru taldeen artean osatu ginuen.

Lehen taldea Eguberri deitzen zen, bigarren taldea Mahasti-Oihana deitzen zen eta hirugarrena Korrika zen.

Lore

AURKIBIDEA:

- 1- Ikastolako ikusgarria
- 2- Bestak
- 3- Bertsoa
- 4- Errugbia ikastolan
- 5- Salmentak
- 6- Bertsolari ttipi
- 7- Bozkak
- 8- Gexan eta Patxika ikastolan
- 9- Artea
- 10- Brasil
- 11- Artikuluak
- 12- Jokoak

Korrika ttipi

Korrika ttipira joan ginen ikastola osoarekin baigorrrira, Martxoaren 9 an astelehen goizez.

Baigorriko karraketan , urteka eman ginen, baina heldurik aski ez baitzen, 4 eta 5 urtekoek Aloñarekin ziren eta 2 eta 3. urtekoak elgarrekin eman ginen, Amaia eta Laidarekin.

Abiatzea herriko etxean izan zen eta heltzea parkean egin genuen.

Ikastolan petoak egin genituen eta Korrika ttipin ezarri genituen. Axeri eta Pottokak Mainer eta Aintzane zituzten aingeru begirale bezala. Urtxintxek aldiz Aña eta David zituzten, ttipienak Kattalin eta Salomerekin ziren.

Korrika bukatu zelarik parkean, euskara eta Korrikari buruzko mezuak eskola eta ikastola bakoitzak irakurri zituen. 4 eta 5. urtekoek bertso bat egin eta kantu zuten. Maialen Errekart zen Korrika ttipiren antolaketaz okupatzen. Eskerreak luzatzen dizkiogu Maialeni.

Bukaeran, parkean piknikatu genuen.

Ainhua



Herri urrats

2026 eko maiatzaren 10 ean milaka euskaltzalez bete zen beste behin ere Senpereko aintzira .

Geroa eraikiz lemapean egin zuten besta iparraldeko ikastola guzietatik baita bestazaleek ere.

Bestaren antolaketaren barne, pegatinak kolegioetako seigarren eta bosgarren urtekoek saltzen dituzte Herri Urratsen.

Senperera joateko autobusak antolatuak ziren. Ikastolan Herri Urratseko kantua « Laku bat orroka » ikasi genuen .

Sei gunetan partekatzen da Herri Urrats eta egitarauak eta mapak banatzen dira sartzeetan.

Herri Urrats adin guzientzat antolatua da : haurren xokoan jokoak eta makillajea izaiten dira.

1984 ean sortu zen Herri Urrats ikastolen diruztatzeko eta ikastolen elkartzeko.



Ezti



NAFARROAREN EGUNA.

Nafarroaren egunean goizean desfilea bada eta desfilean, lehenak, Basandereak, Basaldunak eta Xilintxadunak dira. Ondotik ziganteak eta dantzariak bukatzeko musikariak badira. Txartelak hastapenean eta Baigorriko ikastolan erosten dira eta txartelekin janaria eta edariak erosten ahal dira. Jokoak ere badira eta ez dira txartelekin erosten. Haurren xokoa urririk da eta badira puzgarriak, makillaje eta beste gauza batzuk. Jateko taloak eta fritak baziren.

Uxue



Bertsoa: ikastola

Doinua: gizona da zoroa

Azkarate herrian
Ikastolan dira
Hogeita bederatzi
Ikasle badira
Hemen bost erakasle
Baitira guztira
Munhoa ikastola
Hoberenak gira!

Uxue-Lur

ERRUGBIA

Ostegun arratsaldeetan David Massiasekin plazara goaz errugbian aritzera. Errugbiaren oinarriak ikasten ditugu eta denek plazer hartzen dugu. Errugbi-hunki egiten dugu ez bortizkeriarik ukaiteko. Apirilean hasten dugu eta ekainean bukatzen dugu. Gure saioak oren batekoak dira.

Ekainaren 12 an Garaziko eta Ortzaizeko ikastolako haurrekin txapelketa bat egin dugu.

MILESKER DAVID

Jokin



Salmentak

Hastapenean, Uxue-Lur, Ainhoa, Ezti, eta Dioni salmenten egiten hasi ziren asteazkenetan. Salmentetan, biskotxak, zkubiduak eta esku-muturrekoak saltzen zituzten. Ezti eta Uxue-Lurrek salmentak Azkarateko plazan egitea proposatu zuten Ainhoa eta Dioniri eta haiek bai erran zuten.

Asteazken batez sei neskek saltzen hasi ziren hamarrak inguru eta gero gelditu zuten hila batez. Ondotik, Uxue eta Ihitz taldean sartu ziren. Uxue-lur, Ainhoa, Uxue, Ihitz, Dioni eta Ezti berriz hasi ziren Azkarateko plazan hamarrak eta erditan puxkak saltzen. Salmentak eginez jende gehiago sartu ziren eta gauza gehiago saltzeko bazuten.

Sartu ziren haur horiek: Jokin, Naia, Amaiur eta loritz ziren. Salmenta horren helburua ikastolarentzat materialaren erostea zen eta irabazi diruarekin kaxen erostea zen helburu. Hori guziaz eginez ainitz sos ukan genuen, 351 euro !

Orain kaxak baditugu eta kontent gira esku baloiean eta zango baloiean aritzea.

Laster diru hori esker, gimnaztikako tapisak ukanen ditugu.

loritz



Bertsolari ttipi

Urte guziz bertsolari ttipira goaz ikastolarekin. Urtean zehar, Xan Alkhat ikastolara heldu da bertsolaritzaren erakastera 3, 4 eta 5. urtekoei. Kurtsoetan , bertsoak egiten ditugu gaia guk hautatuz, ondotik bertsoak ikasten ditugu eta urte guziz Lartabaleko salara joaiten gira. Bakotxak bere aldi kantatzen ditugu gure bertsoak. Ainitz ikastola badira beraz,astearte goizean 10 :00 etik 12 :00era 6 ikastola izan ziren : Alozeko ikastola, Sohütako ikastola, Baigorriko ikastola, Azkarateko ikastola , Garaziko ikastola eta Amikuzeko ikastola. Bertsolari ttipi bukatua delarik gure pik-nika hartzen dugu eta usaian MEEK kolegioan jaten dugu. Azkenean gure autobusa jiten da eta ikastolara ekartzen gaitu.

Naia



AZKARATEKO BOZKAK

Martxoan, herritar heziketa kurtsoan bozken antolaketa landu genuen helduak bezala. Beraz, gelan taldeak egin genituen eta proposamenak egin genituen ikastolaren hobetzeko. Adibidez, proposatu genuen ikastola haunditzera, pentzearen parte bat erosi nahi genuen. Gero ,gure proposamenekin gaztelura joan ginen, Herriko etxera, eta auzapeza ikusi genuen.

Zoe



GEXAN ALFARO ETA PATXIKA ERRAMUZPE IKASTOLAN.

Angelutik ekainaren 27an Patxika eta Gexan ikastolara jin ziren haien ipuinen aurkeztera. Orotara hamahiru liburu eta kantu idatzi zituzten 1982tik aintzina. Liburu hauek berriz argitaratu zituzten haien haur ttipiak sortu ondoan. Idatzi zuten lehen liburua *Kapitain piloturen airontzian* deitzen da.

Maideren gelakoak sei liburu irakurri zituzten urtean zehar eta lehen mailakoek 8 liburu irakurri behar zituzten irakurriz gozan. Kantuak goiz guziz kantatzen genituen gelan sartu aintzin.

Gexanek lau liburu irakurri zizkigun, Patxikak irudiak erakusten zituelarik. Ipuina bukaeretan, kantuak kantatzen genituen gogotik ! Azkenik Mirua kantua dantzan, koregrafia bat eginez kantatu genuen denek elgarrekin kanpoan.



Eskertu genituen saski bat janariz beterik eskainiz. Uros ziren eta ondotik Angeluko bidea hartu zuten.



ARTE ATELIERRAK OIHANEAN

3 ostiral goizez, oihanera joan ginen bizikletaz. Arte atelierrak egin ginituen Christelle Landartekin ! Banazka eta taldean, arrastoak esploratiu ginituen eta naturak eskaintzen dituen tresnak baliatu ginituen gure oihalak apaintzeko : beterraba, kurkuma, ikatza, hautsa, liliak, hostoak, egurrak, lumak... Izigarri untsa pasa ginuen eta harro ginen sortutako obrak ! Milesker Christelle !!

Emma, Pako eta Aimar



BRASIL

Ene familiarekin Brasilerara joan ginen bi hilabeterendako. 2026eko apirilaren 13an, goizeko bostetan etxetik partitu ginen. Irunen hartu genuen hegazkina, Madrileko aireportura joaiteko. Madrilera arribatu eta fite hegazkina harrapatu behar genuen. Hegazkinean hamar oren pasa genituen São Paulora joaiteko.

São Paulon arribatu eta hemengo gaueko hamekak eta hango gaueko seiak ziren. Lau egunen buruan, autobusa hartu genuen Ubatubara joateko. Han surfa egin genuen. Lau egunen buruan, autobusa hartu genuen berriz São Paulora joateko. Biharamunean, hegazkina hartu genuen IGUAZUra joateko. Han ur jauziak ikusi genituen. BRASILEn gure aintzinean genituen eta ARGENTINAN haien gainean ginen. Lau egunen buruan hegazkina hartu genuen RIO DE JANEIROra joateko. Han aste bat pasa genuen. CORCOBADO mendia igan genuen jesusen estatuaren ikusteko. Aste baten buruan hegazkina hartu genuen FORTALEZARA joateko. FORTALEZAN autoa alokatu genuen hilabete batendako. Han lagun bat ginuen bakarrik bizi zena eta bere etxera joan ginen hilabete batendako. Han pizina bat bazen eta animale bezala opozomak, ximinoak... ikusi genituen.

Ondotik, BOA KONSTRIKTOR bat hil genuen. Gainera, bainugela batean xinaurriek etxe bat egin zuten. Auzo bat baginuen pixka bat zozoa zena, beti musika azkar emaiten baitzuen. Hilabete baten buruan FORTALEZARA joan ginen bi gau pasatzera eta ondotik autoa alokatu genuen lekura joan ginen. Gero, hegazkina hartu genuen SAO PAULORA joateko. Han bi gau pasa genituen eta berriz hegazkina hartu genuen. MADRILEN beste hegazkin bat hartu genuen IRUNera joateko. IRUNera arribatu girelarik 06/06/2026 zen, eta gure bidaia ainitz maitatu genuen.

Dioni.

BIGARREN GERLA MUNDIALA

1939an hasi zen eta 1945ean gelditu zen. Gerlan ari zirenak Alemania eta Frantzia ziren. Gerlako armak tankeak, hegazkinak eta mitraietak ziren baina kartutxa eta karabina pistola eta aunitz ere baziren.

Gerlak jende aunitz hil egin ditu eta gerlako bunkerrak ez ziren batere garbiak. Arratoiekin lo egiten zuten, loia aunitz bazen, ez zuten janaririk, ez zuten aunitz lo egiten eta gerlara joateko 18 urtetik 50 urtera arte zen.

Xanti



ZUHAITZ - IGELA

Euskal Herrian badira ainitz zuhaitz – igel. Udaberrian eta uda hasieran putzuetara joaiten dira. Bere hankek kolatzen dute. Horri esker zuhaitzetan igaiten ahal da eta hostoen artean ibiltzen ahal da. Berdea da eta oso ttikia da tamaina gorena 50 mm da eta begietan beltza badu. Frantzian ere atxemaiten ahal dira.



Ihitz

SAGARROSA


Sagarroiak erpinak baditu eta janaria atzemateko usaintzen du. Fruituak eta barazkiak jaten ditu. Sagarroiaren ezau-garri inportanteena bere xixtak dira.

5 000 xixtatik gora izaten ditu. Patta finak baditu, bisaia luzea du eta muztatxak baditu.



Laida


LANDAREAK NOLA PUSATZEN DIRA?



Hasteko, hazi bat behar da. Gero landarearen pusatzeko beharrezkoak dira: ura, lurra edo kotoina, haizea eta eguzkia.

Landarea pusatua delarik, loreen gainera heldu zaizkio intsektuak lore-errautsaren biltzeko eta jateko.

Hauk dira landarearen atal desberdinak:



Laida

JOKOAK

Hitz nahasiak

Ikastola

V	R	S	U	X	Z	V	O	E	B	R	E	R	U
Y	O	L	L	A	R	R	A	Z	K	E	N	A	R
R	T	N	A	T	U	D	K	P	D	V	Z	F	A
B	V	X	Z	R	Y	I	N	T	G	V	I	T	O
L	U	A	K	Z	Y	Z	K	U	I	R	A	T	I
A	A	U	A	E	A	M	S	A	G	K	U	M	C
N	N	H	R	X	M	K	U	X	S	T	P	A	S
D	B	I	A	R	L	R	U	N	Z	T	S	Z	U
A	O	S	T	T	B	S	X	A	H	O	O	Z	W
R	O	F	E	J	V	C	Z	P	S	O	Z	L	K
E	L	B	M	S	Z	O	R	R	O	A	A	O	A
A	R	X	V	G	F	R	E	P	M	G	O	O	A
K	B	D	S	N	Z	L	Z	Y	S	B	Z	A	H
Y	D	E	F	Q	D	X	I	F	B	O	V	E	U

azkarate

ikastola

irati

landareak

larrazkena

munhoa

ura

zakua

zorroa

zozoa

EUSKAL HERRIKO PROBINTZIAK

N	B	N	U	B	U	L	A	B	U	X	B	G
N	A	F	F	K	A	U	B	L	A	I	I	I
A	X	F	B	U	B	A	-	X	X	E	L	N
F	E	L	A	R	A	B	A	X	E	N	A	F
A	-	B	L	R	E	B	E	B	-	B	B	U
B	N	E	O	N	R	-	L	L	N	O	A	B
E	E	L	U	N	N	O	L	-	A	I	I	O
A	D	I	Z	K	A	I	A	B	F	I	I	A
E	F	A	B	N	U	L	P	A	A	I	I	B
U	L	B	N	N	B	B	U	X	R	B	A	-
E	U	A	N	N	B	B	R	-	R	A	X	B
I	S	L	L	E	E	N	D	E	O	X	E	A
O	E	O	A	E	E	X	I	B	A	R	U	A
I	B	P	A	R	I	B	E	R	U	A	V	T

NAFARROA
 ARABA
 BIZKAI A
 GIPUZKOA
 LAPURDI
 BAXE-NAFARROA
 XIBERUA

SUMOKUA

A		C	
	D		B
D		B	
	C		A

A		C	
	D		B
B		A	
	C		D

SUDOKUA

4			
2		1	
	2		
		3	

